

Zurekin
GIPUZKOA
gara  ebildu

GIPUZKOAKO
PROGRAMA
2019

Etorkizuneko herria

- Euskara 04
- Jatorri aniztasuna 05
- Gazteria 06

Herri duina

- Politika soziala 09
- Adinekoak 10
- Anistasun funtzionala 11

Bakedun Herria

- Memoria eta biktimak 13
- Presoak 14
- Elkarbizitza eta giza eskubideak 15

Herri Demokratikoa

- Kudeaketa etikoa, burujabea, gertukoa eta parte hartzailea 17
- Zerbitzu publikoak 19

Herri Justua

- Feminismoa 21
- Aniztasun afektibo sexuala 23
- Zerga Politika 24

Herri jasangarria

- Aldaketa klimatikoa 28
- Natura eta natur baliabideen defentsa. Mendiak eta natur inguruneak 29
- Energia 31
- Hondakinak 32
- Mugikortasuna 34

Herri aurreratua

- Elikadura burujabetza 36
- Industria 38
- Merkataritza 39
- Zerbitzuak eta turismoa 40

Herri ikasia

- Kultura 42
- Kirola 43

Etorkizun herria

Euskara
Jatorri aniztasuna
Gazteria

| | |
|-------|----|
| _____ | 04 |
| _____ | 05 |
| _____ | 06 |

ehbildu

EUSKERA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Bi estatu handien hegemonia linguistikoen mendean bizi da Euskal Herria. Frantsesez edota gaztelaniaz derrigorrez hitz egin behar dugu bizi ahal izateko, gainerako hizkuntza-komunitateek ezin dute hori bera egin. Ondorioz, euskarak menpeko estatus juridikoa du.

Hori, bistan da, asimetria nabarmena da. Euskaraz ez jakitea toleratu beharreko hautua da eta euskaraz bizi nahi izatea aldiz kapritxo bat.

Gipuzkoan euskara egoera gutxituan jarraitu arren, lurralde euskalduna da ezagutzari dagokionez: biztanleen %53 euskaldun eleaniztuna da eta beste %23 euskaraz ulertzeko gai da; gainera, 2 eta 30 urte bitarteko gazteen %77 euskaldun eleaniztuna da. Ukaezina da Euskal Herriaren zati batean azken mende erdian, eta horrenbestez, euskal hiztunen herritar eskubideetan ere hobera egin dela. Herri ekimena izan da hobetze horren kimu eta akuilu, eta hazi hori administrazioak bere egin duen eremuetan lortu direla, zalantzarik gabe, emaitzarik onenak..

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Euskaraz oso-osoan bizitzea ahalbidetuko duten baldintza politikoak, juridikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak lortu behar ditugu: euskararen erabilera handitzeko, ohiko hizkuntza bihurtzeko eta euskararen normalizazioa bideratzeko, euskara jakitea unibertsalizatzeko eta euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa emateko.

Gipuzkoa hizkuntz normalizazioaren erdigune bilakatu behar dugu. Herrialdeak daukan egoera soziolinguistikoan oinarrituta badago nahikoa faktore egoki horretarako. Hizkuntz normalizazioari mailako zentraltasuna eman behar zaio ikuspegi politiko-estrategikoan hizkuntza helburuak txertatuz.

Elkarlana eta lidergo partekatua elikatuz. Euskararen normalizazioak norbanako eta eragile guztien bultzada, auzolan estua, eta erakunde zein administrazio ezberdinen koordinazioa beharrezkoa du.

Ekintza zehatzak

- Administrazio publikoaren kontratuetan hizkuntza-irizpideak zehaztea eta ezartzea. Administrazioarentzat lan egiten duten enpresa guztiek hizkuntza-irizpideak bete beharko dituzte.
- 16 urtetik beherakoekiko harreman eta jardueretan administrazioak euskararen erabilerari lehentasuna emateko neurriak onartzea.
- Euskararen erabilera sustatzen duten hainbat tresna sustatzea, hala nola softwarea eta oinarritzko aplikazioak euskaraz, astialdirako IKT produktuak, .eus domeinua eta euskararen erabilera interneten.
- Enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak aktibatzea, euskara laneko eta zerbitzuetako hizkuntza izan dadin.
- Euskararen erabilera bultzatzea kirolaren eta aisiaren eremuetan.
- Euskara ikasteko doakotasuna.

JATORRI ANIZTASUNA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Lehenik eta behin, erabat baztertzen dugu jaioterra kategorizazio irizpide gisa erabiltzea, herri honetan bizi garen guztiok euskal herritarrek garelakoan baikaude, jaio garen lekua, sexua, sexu-orientazioa, sinesbidea, etnia eta abar edozein izanik ere.

Arazoi ekonomiko, politiko, kultural eta sozialek eraginda euskaldun asko eta asko barreiatu dira mundu osoan, eta, era berean, jatorri askotako pertsona eta talde ugari iritsi direla Euskal Herrira. Horren ondorioz, Euskal Herria askotarikoa da herritarren jatorriari dagokionez, eta arlo horretako politikari era integralean ekiteko beharrezkoak diren eskumenak eduki ez arren, migrazioaren eta aniztasunaren eremuan paradigma aldatzea eta ikuspegi propio, zeharkako eta integral bat txertatzea proposatzen dugu.

Sistema kapitalistak herrialde anitz pobretu ditu gutxi batzuk aberasteko. Horrek migratze-beharra eragin du eta behar hori baliatu du sistema kapitalistak jatorri desberdinetako langile klaseak elkarren kontra jartzeko. Horrela, aspaldi honetan, krisi ekonomikoa baliatuz zabaldu diren mezu interesatuek beldurra eragiten dute eta beldur horrek jarrera arrazistak eta xenofoboak azaleratzeko baldintzak sortu ditu.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Pertsona guztientzat eskubide guztiak eta aukera berdintasuna aldarrikatzen ditu EH Bilduk.

Elkarren ezagutza eta ulertzea ahalbidetuko duten dinamikak eta jarduerak beharrezkoak ditugu, elkar aitortzaren eta, ondorioz, elkarbizitzaren oinarri baitira.

Administrazio publikoetan aurrera eramaten diren politika orotan zehar-lerro gisa lantzea ezinbestekoa da eta beharrezko dugu mota aniztetako harrera, elkar ezagutza eta bizikidetzaren planak diseinatu eta martxan jartzea, instituzio-arteko elkarlanean oinarrituz.

Era berean, herritartasun unibertsalari lotutako eskubideak aktiboki defendatzen ditugu. Migratzaile eta errefuxiatuei eta haien bidezko eskubideak bermatzeko lan egiten duten erakundeei baldintzarik gabeko babesa bermatu nahi diegu.

Bestetik, EH Bildun jendarte feminista eraikitzeke dugun konpromisotik abiatuta, ezin ahantz dezakegu emakume etorkinek bizi duten egoera, batez ere sektore jakin batzuetara bideratzen diren fluxu migratzaileen feminizazioa dela eta (bereziki zaintzan aritzeko)

Emakume etorkinek bizi duten bazterkeria bikoitzari aurre egiteko beraz, erakundeetatik burutu beharreko lanean genero ikuspegia garatzea ezinbestekoa izango dugu. Eta ekimenen artean, emakume etorkin hauen aitortza, bisibilizazioa eta prekariedade egoerei aurre egitearekin batera, beraien ahalduzko prozesuak ere babestu beharko ditugu

Acciones específicas

- Gipuzkoako eragile sozial, politiko eta instituzionalen arteko lankidetzaren eta koordinazioarako gune misto bat sortzea, aniztasun- eta migrazio-alarreko politikari buruzko erabakiak hartzeko —eta lankidetzaren eta elkarlanerako eta elkarri laguntza, babesa eta aholku emateko— esparru baten antzera.
- Kultura-aniztasunerako politikak diseinatu, egikaritu eta koordinatuko dituen zuzendaritza bat sortzea, politika horien zeharkakotasuna ziurtatzeko.
- Euskara-irakaskuntzaren hurbilketa eta doakotasun unibertsala, lurraldean/hirian bizi diren pertsona heldu guztientzat, haien jatorria edozein izanik ere.
- Harrera-sare bat sortzea, diziplinarteko aholkularitza zerbitzu batez hornitua (arreta legala, soziokulturala, itzulpen zerbitzua...), asistentzialismo soiletik harago zeharkako ikuspegi integral batetik jardungo duena: iristen diren, iragaitzak diren edo iritsi berri diren pertsona guztientzat, orientatu eta informatu beharreko gaiak bere osotasunean landuz.
- Arrazakeria- eta xenofobia-gaien gaineko salaketak jasoko dituen eta jardun horietako biktimei laguntza eta aholku emango dien bulego bat sortzea.

GAZTERIA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Euskal gazteria, euskal jendartea bezala, kolektibo anitza eta zabala da. Kolektibo batez ari gara.

Eremuz eremu arazo zehatzak dituen kolektiboa, Euskal Herriaren bizitza politiko, sozial eta ekonomikoaren garapenak bete-betean eragiten diguna. Gazteok zapalkuntza integrala jasaten dugu, aurpegi eta egoera ezberdinekin mozorrotua, eta horregatik, honen aurrean irtenbide integralak behar ditugu.

Zentzu honetan, enplegua eta etxebizitza izanik euskal gizartearen kezka nagusienetakoak, gazteriak bizi duen egoera bi arlo hauetan ekinbide argiak eskatzen ditu.

Enpleguaren prekarizazioa bereziki larria da 30 urtetik beherako gazteen artean. Hilean 900€tik gorako soldata duten gazteen multzoa ez da %22ra iristen.

Horrek dakar, besteak beste, Europako iparraldean batz-beste emantzipazio adina 19-20 urterekin den bitartean, Euskal Herrian 30 urtetakoa izatea.

Beraz, gazteria zeharkako eran landu beharrekoa da, aldaketa politiko eta sozialaren bidean motorra izango den gazteriaren etorkizun duina gaurdanik eraiki eta bermatzeko.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Gazteok burujabe izan nahi dugu zentzu guztietan. Gure bizitza zein gure herriaren etorkizunaren gainean erabaki nahi dugu. EH Bildutik apustu garbia egiten dugu: Euskal Herriko gazteen oraina eta geroa bermatuko dituzten politikak proposatu eta egikaritu behar dira, arlo guztietan, iraunkorki eta gazteon nahi eta beharren arabera.

- EH Bilduk gazteok gure bizi proiektuak (lurralde/herrian) garatu ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak bermatze aldera (enplegua, etxebizitza, zerbitzuak, mugikortasuna...) lan egiteko konpromisoa hartzen du.
- Bizitza politiko, sozial zein kulturean gazteon parte hartzea ezinbestekoa da, gure eskubideak bermatu eta jendartearen transformazioa bultzatzeko beharrezkoa den heinean.

EH Bilduk, beraz, Hego Euskal Herriko gazteen beharrak kontuan hartuz, eremu guztietan haien egoeraren jabetun izan, eta horren aurrean erabaki sendo eta ausartak hartzeko konpromisoa hartzen du. Gazteen arazoak jendarte osoaren arazo bilakatzeko lan egin behar dugu, "gazte betaurrekoak" jarriz, herri honen geroa marraztuko duten kide guztiongan.

Gure eskaintza planteatutako oinarrien baitakoa da, baloreen iraulketa bultzatzeko asmoz, gazteon bizitzak hobetzeko helburuarekin.

Ekintza zehatzak

1. Gazteen bizi-baldintza objektiboak hobetzea

- Gazteen prekarietareari aurre egiteko, Aldundiarekin kontratazio publikoa egiten duten enpresetan 1.200€tako gutxieneko soldata bermatuko dugu.
- Gazteen premietara egokitutako garraio publikoa bultzatzeko, adinaren eta diru-sarreraren arabera, eta landa-inguruneko joan-etorriak aintzat hartuz transbordoak doakoak bihurtzea eta hilean 50. bidaitik aurrera doakoa izatea ere.
- Gazteen emantzipazioa errazteko diru-laguntza lerroak sortu, tokiko eskatzaile eta eskaintzaileen poltsak eratu, eta hutsik dauden etxebizitzak berrerabiltzeko bitartekotza-lana eginez.
- Gazte ekintzaileentzako laguntzak sustatu, ekimen kooperatiboentzat bereziki, udal zein tokiko garapen agentziekin elkarlanean.

2. Gazteen artean ahalduntze-prozesuak aktibatzea

- Insituziotik gazteengana hurbiltzea eta kolektibo eta elkarteetan parte hartzen duten gazteen eta ez duten parte-hartzerako bideak bultzatzea, haien proiektuak abian jar ditzaten, udalekin elkarlanean.
- Sormena sustatzeko ideiak elkartrukatzeko, eta ekimen sozial, kultural eta ekonomikoak bultzatu eta sortzeko topagunean martxan jartzea, udalekin elkarlanean

Herri duina

| | |
|-----------------------|----|
| Politika soziala | 09 |
| Adinekoak | 10 |
| Aniztasun funtzionala | 11 |

ehbildu

POLITIKA SOZIALA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Gizarte-zerbitzuak Ongizate Estatuaren oinarrietako bat dira eta eskubide unibertsal eta subjektibo gisa eratu behar dira. Hala eta guztiz ere, eskubide hauek bermatzeko gai ez den sistema ahul baten aurrean gaude: diru hornidura eskasa, pribatizazio maila altua eta lurralde desoreka izan ditu ezaugarri sistema honek.

Horrela, 2015ean Gizarte Zerbitzuen legea garatzeko adostutako finantzaketa ez da plaza eta zerbitzu berrietara bideratu, gizarte-zerbitzuetarako dauden beharrak eta eskaerak ez dira erantzun eta euskal herritarren eskubideen aitortpena baldintzatuta dago bizi diren tokiagatik.

Gizarte politikek eragin berezia dute zainketen alderdi batean, konkretuki, alderdi espezializatu eta intentsiboenetan. Hego Euskal Herrian zainketa lanak familiek egiten dituzte eta, bereziki, emakumeek. Gainera, lan hauek merkaturatzen direnean, emakumeek hartzen dituzte, askotan, baldintza prekarioetan. Errealitate hau ez da emakumeek askatasunez hala erabaki dutelako. Zainketaren etika erreazionarioaren inposizioan du oinarria eta krisialdi ekonomikoak areagotu egin du ardura nagusia emakumeengan jartzea.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Zaintzen krisiaren aurrean zainketa duinak eta kalitate onekoak bermatzeko lan egin behar dugu: alde batetik, zaintzeko eta zaintzak jasotzeko erabakia askatasunez hartzeko beharrezkoak diren prestazioa eta zerbitzuak bermatuz; beste aldetik, Gizarte Zerbitzuetan lan baldintza eta soldata duinak bermatu behar dira.

Gure lehentasuna izango da herritarrei 185/2015 Dekretuan (Zorro Dekretua) jasotako prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, beharrezkoak diren estaldura eta intentsitateekin, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea garatzeko tresnetan jasotako helburuak berraztertuz, horiek areagotzeko.

Askatasun erreala ezin da eman hau gauzatuko dela bermatuko duten baldintza materialik gabe. Horregatik, uste dugu mundu guztiak izan behar duela existitzeko eskubidea bermatuko dion oinari material edo gutxieneko errenta.

Diru sarrera faltak herritarren parte bat pobrezian nekez bizitzea dakar, baina pobrezia eta gizarte bazterketa desberdintzea komeni da. Azken honek ez du dimensio ekonomikoa bakarrik. Horregatik, gizarte bazterketaren kontrako jarduerak politika integralen baitan artikulatu behar dira.

Ekintza zehatzak

Gizarte-zerbitzuetarako aurrekontua handitu, bai dirutan eta bai aurrekontu orokorraren gainean duen pisu erlatiboari dagokionez, % 50era iristeko helburuaz.

Mendekotasunaren balorazioa egiteko denbora 59 egunetik 20 egunera jaistea.

Itxarote-zerrendak murriztu 199 egunetatik 80 egunetara, plaza eta baliabide berriak sortuz eta dauden estaldurak handituz. Kontuan hartuko ditugu, batez ere, biztanleko estaldura txikiena duten lurraldeko guneak, plazen okupazioan errotazio baxuena duten zerbitzuak eta deszentralizazio, komunitate arreta eta gertutasun irizpideak.

Zerbitzuen kalitatea hobetu sektorean diharduten pertsonen lan-baldintzak hobetuz. Artatutako pertsonen eta zaintzaileen arteko ratioa handitu. Zaintzaileen soldata-baldintzak hobetu, eta lan-hitzarmenak sustatu horrelakorik ez duten sektoreetan. Adinekoentzako eguneko zentro eta egoitzetan dagoen lan gatazka konpontzeko konpromisoa.

GFAk 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera Familia ingurunekeo zaintzetarako prestazio ekonomiakoaren (FIZPE) zenbatekoetan ezarritako murrizketak bertan behera uztea eta zenbateko horiek leheneratzea.

ADINEKOAK

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Herri-sektore honen egoera larria estrukturala da, alegia, eremu orotan du isla, horregatik, pentsio publikoei eraso egitean, hauek lortzeko gero eta oztopo handiagoak jarriz eta haien etengabeko debaluazioaren ondorioz, adinduak eroste ahalmena etengabe galtzen ari dira; beraien bizi-kalitatearen narriadura muga guztiak gainditzen ari da.

Egun aplikatzen diren politika publikoek gabezi handiak dituzte pertsonen autonomia galtzeari koherentziaz eta modu egokian erantzuteko, besteak beste, autonomia pertsonala galtzearen prebentzioa sustatu beharko luketen aurreratze politiketan hutsune nabarmenak daude, bakardadeari aurre egiteko politiketan, berezko zaintzan, eta abar. Menpekotasun egoerei ingurunera egokitzeko politikek gabezi handiak dituzte –hirigintza, laguntza teknikoak, garraio egokituak– eta laguntza politikak ez dira nahikoak.

Adineko emakumeen parte hartze sozial aktiboa txikia izan bada ere elkarrekin, plataformetan, pentsiodunen mobilizazioetan ugari ikusi ditugu kaleetan dagozkien eskubideak aldarrikatzen. Hori dela eta, parekidetasunean eta arduren partekatzean urratsak eman behar dira, emakumeen presentzia aktiboa bermatu ahal izateko.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Helduentzako bizitza baldintza duinak sortzea dugu helburu, pentsio duinak lantzetik hasi eta osasuna, etxebizitza eta parte hartze aktiborako eskubidea bermatzera arte.

Gaurko adinekoen errealitatea eta eskariek ez dute zerikusirik orain dela urte batzuetakoekin alderatuta. Egungo adinekoen gehiengoa osasunez ondo dago eta bere kabuz moldatzen da autonomia maila altuekin. Adineko askok ekarpenak egiten dituzte bere inguru hurbilean –seme-alabei ostatu edota laguntza ekonomikoa ematen, bilobak edo beste ahaideak zaintzen–, eta gizartearen –boluntariotzaren bidez, elkarrekin eta gizarte mugimenduetan lan eginez–. Hori horrela, gizartearekiko beste harreman mota bat aldarrikatzen dute helduek, eta eskari hori erabat zilegi da. Alde batetik, eskatzen dute beren aniztasuna aintzakotzat hartzea eta ez daitezela tratatu talde homogeen gisa, denak zaku berean sarturik. Beste aldetik, adinekoekin erlazio zuzena duten gaiak erabakitzen diren espazioetan parte-hartze eskubidea aldarrikatzen dute.

Hortaz, adinekoen parte hartzera, integrazioa, pertsona bakoitzaren berezitasunak eta duintasuna errespetatzera eta zerbitzu publikoen erabilera eta kalitatea hobetzera bideratutako neurriak hartu behar dira.

Ekintza zehatzak

Pentsiodunen eskakizunak eta mobilizazioak babestea.

Tratu txarren aurkako eta adineko pertsonenganako errespetuzko tratu egokiaren aldeko kanpainak egitea.

Funtsezko zerbitzuak landa-eremura hurbiltzea, eta landa-eremuetan garraio publikoko sareak indartzea.

Adineko pertsonen parte hartzeko gune formalak bultzatu eta berrikustea, banan-banan eta elkarte gisa protagonismo handiagoa eta zeregin aktiboagoa eduki dezaten eragiten dieten politika guztietan. Adinekoen Foru Kontseilua sustatzea bere eraginkortasuna zein erabakigarritasuna indartuz.

Adineko pertsonen jendarteari hainbat alorretan egiten dioten ekarpena nabarmentzea, agerikotasunik eza gehien pairatzen dutenen kasuan bereziki, hala nola emakumeak.

ANIZTASUN FUNTZIONALA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Instituzioetarako irisgarritasun unibertsala bermatu behar zaie herritar guztiei, horretarako beharrezkoak diren zerbitzu publikoak eta elkarteak sortuz.

Aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubide eta betebeharren subjektuak izatea lehenetsi behar da, eta horretarako dauden oztopoak murriztu, bazterketa ekonomikoki saritu/arindu beharrean.

Erakunde publikoen esku-hartzea ezinbestekoa eta urgentea da helburuak bermatzeko eta helburu horiek lortzera bideratzen diren baliabideak ondo eta zorrotasunez erabili daitezzen.

Ezin dugu onartu behin-behineko salbuespena iraunkor bilakatzeko. Ildo horretan, guztiok elkarlanean jardun behar dugu gizartea eraldatzeko.

Instituzioek egin behar dute aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubide eta aukerak berdintasuna diskriminaziorik eza eta bazterketarik eza oinarritzko giza eskubideak direla, eta hala ikusarazi behar diete herritarrei.

Hori legeetan ez ezik, pentsamoldeetan ere islatu behar da, eta eragina izan behar du eguneroko bizitzan eta gizarte harremanetan. Horregatik, kontzientziarako, errespetua sustatzeko eta aniztasun funtzionala giza aniztasunaren beste elementu bat dela onartzeko mekanismoak inplementatu behar dira.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Aniztasun funtzionala duten pertsonen kontrako edozein motako aurreiritzi, estereotipo eta bereizketa desagertzea dugu helburu, egiazko aukera eta posizio berdintasuna bermatuz.

Gainera, eremu honetako talde guztiei politiken definizioan, kudeaketan eta ebaluazioan parte-hartzeko eta eragina izateko aukera bermatu behar zaie. Araudiak egiteko eta politikak diseinatzeko eta garatzeko prozesu guztietan aniztasun funtzionalaren gaineko inpaktuari buruzko txostena egin behar da.

Aniztasun funtzionala duten pertsonen prestakuntza eta enplegua sustatzeko helburu nagusietakoa izan behar da, ikuspegi integraleko lurralde antolamendua zein mugikortasuna diseinatzearekin batera.

Ekintza zehatzak

Enplegu publikoan diskriminaziorik eza bermatzea, kuotak ezartzea eta betetzea, lanpostuetarako egokitzapena erraztea, prestakuntzarako laguntzak ematea, eta abar.

Sektore publikoaren kontratazioan klausula sozialak ezartzea, dibertsitate funtzionala duten pertsonak baldintza duinetan kontratatzen dituzten enpresak sustatzea. Jarraipena egitea eta betetzen dutela kontrolatzea.

Foru obra publiko guztietan, irisgarritasunari buruzko araudia betetzen dela bermatzea eta oztopoak kentzea.

Bizimodu independentea programa sustatzea eta pertsona gehiagorengana iristea, horretarako behar den diru funtsa gehituz. Programaren berri emateko informazio kanpaina.

Kirol egokitua maila guztietan sustatzea: eskolan, eskolatik kanpo, oinarrian, amateurretan eta profesionaletan.

Bakedun herria

| | |
|----------------------------------|----|
| Memoria eta biktimak | 13 |
| Presoak | 14 |
| Elkarbizitza eta giza eskubideak | 15 |

ehbildu

MEMORIA ETA BIKTIMAK

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Euskal Herrian azken garaietan eman diren urrats desberdinek ahalbideratu dute, funtsezko eskubideen urraketa onorioak gehien jasan zituztenen errekonozimendu, erreparazio eta memoriarako politika instituzional eta sozialak bultzatzeko premiari buruzko adostasuna egotea.

Gehiago politiko eta sozialak jadanik onartu du urraketa berdinen biktima izan direnei tratamendu berdina eman behar zaiela, testuingurua, unea edota agente urratzailea edozein izanik ere. Tamalez, gertakari berdinen aurrean, onartuta dagoen berdintasunez jarduteko printzipio hori baldintzatu egiten da praktikan, ETaren biktimei Estatuaren biktimei baino eskubide gehiago emanez, diskriminaziorik gabeko aitortza eta erreparazioa oztopatzen duten faktoreak sartuz.

Uste dugu, bere eskubideen urraketa alegatu duen edozeinek kanal instituzional bat izan behar duela egia eta justiziara iristeko diskriminaziorik gabe.

Edozein gobernu-ekintzak pertsona horiei euren eskubideak bazterkeriarik gabe baliatzen laguntzea izan behar du oinarri.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Memoriari buruzko politikek edo eremu horretan hartutako erabaki instituzionalek adostutako plan baten, ikuspegi orokor eta global baten ondorio izan behar dute. Eremu horretan hainbat ekimen sortu diren edo hainbat aurrerapen egin diren arren, urrats horiek txikiak dira gertatu dena ezagutzeko helburuari begira.

Memoriari buruzko legearen ondorioetako bat Egiaren Batzorde bat sortzea izan beharko litzateke, edozein garaitan edo lekutan arrazoi politikoengatik giza eskubideen urraketa bat jasan duela salatzen duen pertsona ororen errealitateari aurre egiteko.

Egiaren eta justiziaren aldeko borrokan genero-ikuspegia sartzeak ezinbestekoa izan behar du. Emakumeek emakume izateagatik sufritu dugu espezifikoki, eta horregatik gure eskubideak espezifikoki kontuan izan eta babestu behar dira. Gatazka politiko armatua gori-gori zegoenean, inpunitatea orokorra izan da emakumeek jasandako eraso kasuetan. Bizi izandako tragedia errepikatuko ez dela bermatzen duten neurri zehatzak ezartzeko sinergiak sortu behar dira. Berriz ez gertatzeko, memoriak mezu argi bati lotuta egon behar du.

Ekintza zehatzak

- Egia ezagutzeko, biktimen eta jendartearen eskubidea den heinean, ikerketa-batzordeak aktibatzea herri eta lurraldeetan, elkarrekin batera, egiaren mapak eraikiz.
- Memoria historikoa berreskuratzeko norabidean, esparru honetan ekimenak aktibatzea (efemerideak gogoraraztea, ekitaldi espezifikoki egitea, erabaki instituzionalak hartzea, dibulgazio-lanak, interpretazio-zentroak, sinboloak eta abar).
- Elkarbizitza bultzatzeko, egia eta justiziaren parametroan oinarrituz lan egitea dagokigu, biktima guztien eskubide-berdintasuna sendotzeko.
- Egia ezagutzeko, biktimen eta jendartearen eskubidea den heinean, gure herriko/lurraldeko biktimen beharrezko aztertzea, beharrezko horietarako laguntzak egokitu edo osatzeko (edota laguntzak jaso ez dituztenek, jaso ahal izan ditzaten).
- Memoria historikoa berreskuratzeko ezinbestekoa dugu, Frankismoaren arrastoak, tituluak, kale-izenak, sinboloak eta abar ezabatzea.
- Elkarbizitza eraikitzeke asmoz, kargu instituzionalekin eta herritarrekin batera lan egitea dagokigu elkarbizitzaren aldeko mahaia martxan jarri.

PRESOAK

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Askatasunean eta demokrazian oinarritutako etorkizuna nahi dugu gure herriarentzat. Baina era berean badakigu azken 50 urte hauetan gatazka indarkeriaren bidez azaleratu dela, eta hainbat kasutan ondorio konponezinak izan dituela; baina oraindik ere jasaten diren ondorio batzuk erreparatu daitezke, denak ez baitira amaitu.

Euskal Herriak bere etorkizuna modu aske eta demokratikoan erabakitzeko eskubidea izan behar du, gatazka indarkeriaren bidez azaleratzen zeneko garaiak gainditu behar dira, eta horretarako ezinbestekoa da garai gogor hartako ondorioak konpontzea. Beste modu batean esanda, ziklo bat eta bere ondorioak itxi egin behar dira, garai berriak indar osoarekin zabaldu ahal izan daitezten.

Premiazkoa da herri honetan bakea eta elkarbizitza atzeratzen ari diren oztopo guztiak gainditzea, eta bide horretan ezinbestekoa, presoak etxera ekartzeko prozesu ordenatu eta progresibo bati bide ematea, preso, errefuxiatu eta deportaturik gabeko Euskal Herri bat eraikiz.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Gatazkaren ondorioak konpontzeko, lehen urrats gisa, alderdi guztien borondatea, elkarrizketarako jarrera eta bitarteko demokratikoetan sakontzeko asmo sendoa beharrezkoak dira, munduko beste hainbat tokitan lantzen ari diren bideetan gertatzen den bezala.

Zentzu horretan ezinbestekoa, azken preso, errefuxiatu edota deportatua etxera ekarriko duen bide orria adostea gainontzeko eragile politiko, sozial eta instituzionalekin.

Bitartean, dispertsioa amaitzea salbuespen-legeria bertan behera utziz, presoak etxera eramatea, eta 70 urtetik gorakoak eta kondenaren 2/3 bete dituztenak aske uztea, egungo egoerak presoek eta euren senitarteko eta adiskideei eragiten dieten sufrimendu gehigarria ezabatuz.

Era berean, funtsezkoa da Espainiako 7/2003 Lege Organikoa indargabetzea. Ildo horretan, halaber ezinbestekoa da Espainiako auzitegiek espetxealdiak luzatzeko aplikatu dituzten Doktrinak eraginik gabe uztea. Justizia trantsizionalaren ikuspegi zabala duten bide berriak irekiz aplikatu behar da legeria.

Ekintza zehatzak

- Kohesio komunitarioko neurriak ahalbideratzeko helburuz, Presoen senitartekoentzako laguntzak aktibatzea, dispertsioak eragindako gastuei aurre egiteko.
- Preso ohia gizarteratzea ahalbidetzen duten ekintzak bultzatzearekin batera, horretarako bideak eskaintzea.
- Presoen giza eskubideen urraketak bertan behera uztearekin batera, salbuespen-neurri guztiekin amaitu beharra dago, arreta berezia jarrita emakume presoek tratatu duina jasotzen dutela bermatzen dela.
- Dispertsioa amaitzeko ekimenak egitea.
- Gaixorik dauden presoak gizatasun-arrazoiengatik espetxetik ateratzeko eskatzea, tratamendu egokia jaso ahal izan dezaten.

ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Gure iragana ahaztu gabe, beharrezkoa da orainari politika global batetik aurre egitea, etorkizunari begira herritarren giza eskubideen eta askatasunen jardun eremuan kudeaketa normalizatua lortzeko.

Hauxe da eremu hori diseinatzeko une egokia, iraganeko joerak, praktikak, neurriak eta jarrerak alde batera utziz. Lehenik eta behin, herritarrek segurtasun-eskubideak defendatzeko eta eskumen sozial eta politikoetan laguntzeko duten nahi bat bezala ulertu behar dugu. Baina beste ikuspuntu batetik, eskubideak eta askatasunak defendatzeko jardunak Estatuaren oinarritzko zutabe eta egiturak dira, eta gaurtik aurrera horiek eraikitzen hasi behar dugu.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Honako hauek hartuko ditu oinarritzat: pertsona guztien eskubideak errespetatzea, elkarbizitza demokratikoa; memoria historikoa berreskuratzeko lana; Euskal Herrian ireki den bake-prozesuarekiko konpromisoa; gatazkaren sorburu eta ondorio diren arazoei buruzko elkarrizketa; desberdinen arteko adostasuna eta baterako lana; eta euskal jendartearen gehiengoak erabakitzen duena errespetatzea.

Egoera horren barruan, oso garrantzitsua da toki-erakundeak inplikatzeko, ekimen zehatzak bultzatuz.

Herri honek eremu bat eraiki nahi du askatasun guztiak defendatzeko, herritar guztiak giza eskubideak erabateko berdintasunean goza ditzaten. Politika publiko guztiak giza eskubideen barnean kokatu beharko lirarteke.

Hala eta guztiz ere, adierazpen bat egiteaz gain, hori praktikan jartzeko eta eraginkorra izateko urratsak egin behar ditugu. Askatasun politikoak, funtsezko eskubide zibilak, eskubide sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta hirugarren belaunaldikoak deitutakoak ere beharrezkoak izango dira. Eta eskubide horiek babesteaz gain, kontuan izan beharko dira zeharkako politika guztietan. Baina batez ere sustatu egin behar dira, horiez gozatzeko eremuak berreskuratuz.

Ekintza zehatzak

- Herritarrei eskubideak eta askatasunak aplikatzen zaizkiela bermatzeko, espazio publikoaren erabilerari, askatasun-eskubideari eta joan-etorri askerako eskubideari lotutako foru eta udal araudia berrikustea, giza eskubideen eta askatasunen irizpideetara egokituz.
- Mozal Legea gure herriaren/hiriaren/lurraldearen bizimoduan izaten ari den inpaktua aztertzea, eta inpaktu hori ezabatzeko erabakiak hartzea.
- Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legearen aplikazioak sortzen duen inpaktua ebaluatzea, eta inpaktu hori gainditzen duten neurriak hartzea.
- Bereziki kalteberak eta baztertuak izan diren sektore eta pertsonen aldeko neurriak bultzatzea, espazio publikoa kontrolik, berrikuspen prebentiborik eta bazterterik gabe erabili ahal izan dezaten.
- Elkarbizitza-guneak eraikitzea, uneoro aniztasuna oinarri izanik, Elkarbizitza Planak garatzea, dauden kolektiboekin lankidetzan. Horretarako, Erakundearen eta gure herrian/hirian/lurraldean dauden kolektiboekin arteko elkartruke eta lankidetzarako guneak sortzea.
- Lan komunitarioko eremuak sustatzea, elkarren arteko errekonozimendua eta lan bateratua ahalbidetzeko.

Herri demokratikoa

| | |
|--|----|
| Kudeaketa etikoa, burujabea, gertukoa eta parte hartzailea | 17 |
| Zerbitzu publikoak | 19 |

ehbildu

KUDEAKETA ETIKOA, BURUJABEA, GERTUKOA ETA PARTE HARTZAILEA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Aberastasuna gutxi batzuen esku jarraituko duela segurtatzeko, sistema neoliberal natur baliabideak, gehiengoaren ongizatea, etorkizuna, bizitza eta lan baldintzak kaskartzen ari da gero eta gehiago. Honekin batera, ustelkerian eta interes pribatuetan oinarritutako urteetako kudeaketa ereduaren eskandaluak ugaritzen ari zaizkigu Euskal Herrian ere.

Sistemaren politika eredu honek erabaki ahalmenik gabeko herritar menpekoak bultzatzen ditu, eta hitz ponposoetatik areago, kudeaketa publiko etikoa eta gertukoaren kontrako norabideko eredu azaleratzen da kudeaketa publikoan. Borondate eza herritarrengana benetan iristeko, informazioa argia eskaintzeko, gardentasunez jokatzeko, eztabaida sustatzeko eta jasotzeko, partaidetza ahalbideratzeko eta herritarrak ahalduzko edo/ta egiazko kontu ematea bermatzeko.

Honi guztiari, nazio gisa dagokigun subjektu politikoaren ukapena erantsi behar zaio. Beste batzuk erabakitzen dute gure izenean.

Kudeaketa eredu honek talka egiten du Euskal Herrian historia eta tradizio handia duten “auzolana” eta “komunitateekin”. Gure jendartean oso barneratua dugu autoeraketaren bidez eta borondatez herrigintza egitea eta mugimendu zein elkarte sare handi eta biziak ditugu. Lanerako baloreak eta parte hartze kultura aberasgarria eskaintzen digute.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

“Arlo publikoan” parte hartzeaz harro dagoen jendartea bultzatu nahi dugu eta herri proiektua osatzean herritarrak protagonista dituen proiektua gauzatu. Horretarako, gertutasuna, gardentasuna eta parte hartzea ezinbesteko printzipioa, filosofia eta lanabesa dira.

Gure erakundeei jendartearen berdintasunerako, justiziarako eta askatasunerako, jardutea dagokie eta horretarako ezinbestekoa da botere publikoen eta herritarren edo jendarte zibilaren arteko benetako harremana sustatzea eta babestea.

Erabaki handi eta txikiei dagokionez herritarrak kalean nahiz erakundeetan ahalduzko garaia da. Herritarren eztabaida eta partaidetza aktiboa, kalitatekoa, erabakigarria, benetakoa, eraikitzailea eta eraldatzailea lortu behar dugu. Berdintasunaren ikuspegitik, egiturari dagokionez diskriminazio egoeran dauden sektoreen hitzari lehentasuna emanez. Praktikan jarri behar dira demokrazia zuzenerako guneak, lankidetzak sozialerako sareak eta demokrazian sakontzeko esperientziak.

Honetaz gain, ordezkari politikoak herritarren zerbitzura dauden pertsonak direnez, jokabide etikoa eta gastu publikoa modu zorrotz eta gardenean kudeatzea ahalbidetzen duten neurriak beharrezkoak dira. Benetako mekanismoak eta berme organoak ezarri.

Ekintza zehatzak

- Herritar guztiek ulertzeko moduko informazio erraza eskaintzea gardentasun osoa bermatzeko (gastu eta aurrekontu publikoak, diru-laguntzak, proiektu handiak eta abar), teknizismoak alde batera utziz, beharrezkoak diren bide guztiak erabiliz baztertuen dauden kolektiboetara iristeko. Herritarrekin elkarriketa sustatzeko, informazio eskaerak eta proposamenak egin ditzaten.
- Herritarren parte-hartzea bultzatzea udalean eta eskualdean, auzolaneko dinamikak indartuz eta pertsona, kolektibo eta gizarte-mugimendu herriko guztien errealitatera eta beharrezkoetara egokitutako elkarriketa eta parte-hartzerako kanalak irekiz edo hobetuz.

- Herritarrentzat garrantzitsuak diren politika publikoei eta proiektuei buruz kontsultak egiteko konpromisoa, eta pertsona eta kolektibo guztien eta bereziki jendartean baztertuen daudenen parte-hartzerako berme guztiak daudela ziurtatzea.
- Kargu publiko eta izendapen libreko kargu guztientzat jokabide-kodeak onartuko ditugu eta betearazteko berme organo independenteak eta gizartearen aldetik kontrola ahalbideratuko dutenak martxan jarriko ditugu.
- Urtero modu partizipatiboan erabakitako foru- edo udal-aurrekontua pixkanaka handitzea. Foru Aldundien kasuan, aurrekontu partizipatiboan prozesuak eskualdeetan oinarrituz egingo dira, Foru Aldundien inbertsioak herritarren eguneroko jardunean gehiago ikusteko helburuarekin.
- Lurraldeko foru arauak herritarren borondatea ahalbideratzeko oztopo izan ez daitezen eta benetako partaidetza ahalbidera dezatela bermatzeko, lan egiteko konpromisoa izango dugu.

ZERBITZU PUBLIKOAK

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Krisialdi ekonomikoaren testuinguruan eta horren aitzakiapean, herritarren oinarrizko babesa, aukera eta posizio berdintasuna eta bizi-proiektua ahalbidetu behar dituzten zerbitzu publikoak jo mugan izan dira etengabe. Pertsonal arloan zein baliabide materialetan murrizketak pairatu izan dira, horien kalitatea hondatuz, estaldura maila murriztuz eta inbertsioak –arruntak zein estrategikoak– apalduz.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Herri baten duintasuna herritarren duintasunean oinarritzen da eta, zentzu horretan, kalitatezko zerbitzu publikoak eraikitzea eta eskaintzea politika publikoen lehenengo eginkizuna eta ardura da, oinarrizkoena.

Datozen lau urteetan, helburu nagusia gure herria murrizketarik gabeko herria izatea lortzea da, egungo egoerari buelta emanez, galdutako hainbat eskubide indarrean jarriz eta, baita ere, aurrerapausoak emanez, babes mailan Europako herri aurreratuekin buruz buru jartzeko. Eta hori dena, langileekin lankidetzan, azken urteetan jaso duten zigorra eta mespretxua gaindituz.

Ekintza zehatzak

- Prekarietareari aurre egiteko, Aldundiarekin kontratazio publikoa egiten duten enpresetan 1.200€tako gutxieneko soldata bermatuko dugu.
- Sektore publikoaren kontratuetan zein erosketa publikoetan ingurumeneko klausulak, berdintasunekoak eta klausula sozialak txertatzeko, jarraitzeko eta bermatzeko urrats efektiboak. Era berean, sektore publikoaren hizkuntza-normalizazio plana eta balorazioa urratsak egiten joateko eta kontratazio publikoan euskararen ezagutza eta erabilpena lehenesteko klausulak.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun benetako eta efektiboaren aldeko urratsak egitea. Konzilizazioaren aldeko politika eraginkorrak martxan jarri.
- Sektore publikoko langileen lan- eta gizarte-baldintzak hobetzea. Lan-harremanen eredu berria, zerbitzu pribatizatuak berreskuratu, lan-baldintzak mantenduz eta/edo hobetuz eta azpikontratatuak zerbitzuetan lan-baldintzak hobetu.
- Gipuzkoako Foru Aldundian deialdi publikorako plangintza egingo dugu datorren legealdian Diputazioko interinitate tasa %35etik %6ra jaistea ahalbideratzeko.

Herri justua

| | |
|----------------------------|----|
| Feminismoa | 21 |
| Aniztasun afektibo sexuala | 23 |
| Zerga Politika | 24 |

ehbildu

FEMINISMOA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Urtetako borroka feminista eta sozialari esker, emakumeek berdintasun formalari erreparatuz gero eskubide ugari eskuratu dituzte, baina, eskubide guztien jabe izan gabe jarraitzen dute gaurko egunean.

Emakumeen eta gizonen arteko parekidetasunaren erronkak politika publiko guztiak busti behar ditu.

Indarkeria matxistari aurre egiteko beharrezkoak izango diren inbertsioez lagunduriko politika publiko eraginkorrak egiteko garaia da, egungo politiketan pertsonen zaintza eta ongizatea lehentasuna izan behar da, eta prekarietate sistemikotik ateratzeko bitartekoak aktibatuta behar dira.

Lana soberan, enplegu duina faltan. Egia da emakumeek ordaindu gabeko lan erreproduktiboari eskaintzen diogun denbora murriztu egin dela. Honek, lan horiek zerbitzuen sektoreak bereganatzea ekarri du. Merkaturatze honek ordea ez du eragin lan hauen aitortzan.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Bizitzaren iraunkortasuna politika publikoen erdigunean kokatua dagoen beste eredu batera igaro behar gara, unibertsaltasuna eta singularitasuna kontuan hartuko dituen.

Emakumeak zaintzaile izateko jaio garen ideia apurtu nahi dugu, eta zaintzeko eta zaindua izateko asmoa duenari bere eskubideak bermatu nahi dizkiogu.

Emakume eta gizonen arteko berdintasun formaletik errealera pasatzera joateko neurriak hartu behar dira, eta indarkeria matxista gainditzeko akordio sozial integrala ere abian ezarri.

Emakumeak eta prekarietatea, lotuta dauden bi errealitate izateari uzteko, akordio sozial berriak eraikitzen jo da, zaintza lanen ardura eta baldintzak parekidetu, edota sistema produktibo eta erreproduktiboaren arteko bereizketa gainditzen haste beretik.

Indarkeria matxista da indarkeria agerikoena eta gaitzespen sozial handiena lortu duena, baina oraindik indarkeriaren oinarria bera eta hainbat indarkeria zuzen ikusgarri egiteko daude. Horretarako ezinbestekoa dugu indarkeria mota guztiez aritzea, baita jasaten duten gorputz guztiak erdigunean jartzea, homofobia, lesbofobia, transfobia..jendarte heterosexistaren ondorio diren heinean erdigunera ekarri behar baititugu.

Ekintza zehatzak

- Aldunditik eta mugimendu feministatik lankidetzazko mekanismo egonkorak ahalbidetu, funtzionamenduari dagokionez printzipio feministei erantzunez.
- Feminizatutako lan esparruak duindu, Aldundiaren pekoak direnetatik hasita.
- Lizitazioetan egoitzetako eta zainketekin zerikusia duten zerbitzu eta zerbitzu feminizatuetako sektoreetako langile eta zaintzaileen lan-baldintzak hobetu eta duin bihurtzeko ziurtatu.

- Gipuzkoako jai eta aisialdi espazio guztiak parekidetzeko neurri zehatzak aktibatu, urrats berriak emanez Hondarribia eta Iruneko Alardeetan zein elkarte gastronomikoetan.
- Udalerrietako berdintasun unitateak Gipuzkoan unibertsalizatu.
- Berdintasun politiketan baliabideak boskoiztuko ditugu, eta departamentu guztietan ikuspegi feminista txertatuko dugu. Honekin batera, kontratazio publikoan zein laguntza publikoetan emakumeen diskriminazioa ahalbideratu dezaketeen proiektu zein proposamen guztiak baztertuak izango dira.

ANIZTASUN AFECTIBO SEXUALA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Ez dago sexualitatea bizitzeko modu bakar eta “normalik”, hau da, gizon, emakume edo bestelakorik gisa garatzeko eta bizitzeko modu bakar bat. Emakumezkoak emakume diren heinean baloratu behar dira (emakume izateko modu anitzak), gizonzkoak ere gizonzko diren heinean baloratu behar dira (gizonzko izateko modu ugari), eta intergenero zein transgenero pertsonak ere identitateak bizitzeko aukera desberdin gisara baloratu behar dira.

Urratsak eman badira ere bereziki bisibilizazioan eta esparruak irabazteko unean, eredu heterosexual eta gorputz normatiboetatik irteten diren pertsonen ez zaizkie eskubide horiek guztiak bermatzen; horregatik baliabide tekniko, juridiko eta ekonomikoak aktibatu behar dira herritartasun anitzak parekidetasunean garatu ahal izateko, edozein delarik ere afektibitatea, sexualitatea, generoa eta gorputza garatzeko hautua.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Araututako harremanen ordena eraldatu behar dugu, eredu patriarkal eta puritanoak inposatzen dituen gizon-emakume, maitasun, erotika, harreman eskemak gaindituz.

Elkarbizitza eta elkartasuna bultzatuko duten ekintzak eta politikak garatzea ezinbestekoa da, gizon-emakumeek askatasunean aukeratutako bizitza moldeak diskriminatu, zanpatu eta epaituko duten jarrerak baztertuaz.

Azken urteotan eta elkarte zein kolektibo lesbiana, gay, bisexual eta transexualek egindako lanari esker, lege mailako urratsak eman dira. Nolanahi ere urratsak ematen jarraitzen dugu aniztasun eta askatasun sexuala jendartearen esparru orotan gauzatu izan dadin, eta paradigma sexuala (heteroaraua) aldatzeko.

Ekintza zehatzak

- Eremu guztietan (ekonomia, kultura, zientziak, komunikabideak, etab.) LGTBI+ pertsonak normalizatu eta ikustarazteko ekintzak bultzatzea, ikusezinoak bihurtutako kolektiboak —lesbianak edo trans pertsonak, adibidez— arreta berezia eskainiz: esaterako, lurraldeko edo herriko kolektiboak, kideen eta mugimenduen memoria historikoa berreskuratzeko jardueren bitartez kanpaina espezifikoak eginez (kasu, kaleen izendegiak aldatzea, ikerketak bultzatzea, omenaldiak antolatzea etab.), helburu horretarako diru-laguntzen ildoak bultzatuz, etab.
- Diskriminazio anitzekin amaitzeko neurriak azpimarratu, tartean: sexuaren erregistro-aldaketarako eskatzen diren betebeharrak aldatzeko, lesbiana bikoteen seme-alaba adingabeak erregistratzeko gaur egun eskatzen diren betebeharrak kentzeko, sexuaren maskulinitatea edo feminitatea zalantzan jartzen duten izenak erabiltzeko debekua bertan behera uzteko, sexu-langileen osasun-, lan- eta lege-babesa bermatzeko.
- Sexu-orientazioagatik edo genero-nortasunagatik bullyingaren aurka sentsibilizatu eta prebenitzeko programak bultzatu.
- Parte hartzeko lankidetzarako gune eta mekanismo lotesle eta iraunkorrak aktibatu administrazio publikoaren eta LGTBI+ kolektiboaren artean.

ZERGA POLITIKA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Bizi dugun egiturazko krisiari aurre egiteko alternatiba sakon eta integralak dira beharrezkoak. Orain arteko zerga politikak aberats eta kapital handien interesak babestera zuzenduak izan dira, ez langileonak.

Azken datuen arabera, Gipuzkoako Ogasunak jasotzen dituen zerga guztien hiru laurdenak, langileok (PFEZ bidez %37,20) eta kontsumitzaileok (BEZaren bidez beste %39,56) ordaintzen ditugu. Biak batuta % 76,76.

Eta Zerga guztien % 6,6 besterik ez da jasotzen Gipuzkoan Sozietateen zergarekin.

Jendartean dauden diferentziak gero eta handiagoak dira. PFEZergaren datuetan emakume eta gizonen arteko soldata arrakala handitzen ari da urtez urte. Eta errenta maila aztertuz, errenta altuko aberatsak gero eta aberatsagoak diren bitartean, errenta baxukoak bere horretan jarraitzen dute. Diferentziak eta arrakalak handitzen doaz, etengabe.

Gipuzkoan aurreko legealdian jarri genuen Aberastasun eta Fortuna Handien zergak goraipamen asko jaso ditu instituzio eta Europako herri askotan. Zerga horrek herritarren %1ari baino ez dio eragiten, hau da, aberatsenei soilik. Nolanahi ere, PNV, PSE eta PPEk bultzatuta, bertan behera geratu da Gipuzkoan ere indargabetuta.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Datozen 4 urteetan guk lortu nahi dugun zerga politika alternatiboaren oinarri nagusiak ezagunak dira: unibertsaltasuna, ekitatea, progresibitatea, berdintasuna, nahikotasuna eta gardentasuna.

Aberastasuna berbanatzea izanik helburu nagusia, aberatsenak zergapetuz lortzen diren baliabideak, behar gehien duten pertsonen oinarrizko zerbitzuak emateko erabiltzea bultzatuko dugu.

Norabide horretan zerga zuzenak izan beharko lukete baliabideen iturri nagusia eta ez hainbeste, zeharkako zergak.

Laneko errenta baxu eta ertainak gehiegi zamatu ordez, kapital errenten ekarpena areagotzea dugu helburu.

Sozietateen irabazien gaineko zergan berez dagokiena ez ordaintzeko enpresa handiek eskura dituzten zulo eta kenkariak kendu nahi ditugu.

Oso aberatsak direnak soilik ordainduko duten Aberastasun eta Fortuna Handien zerga berreskuratu eta indarren jarri nahi dugu.

Zerga iruzurraren neurria edo estimazioa izugarria da egun. Adituek diotenez EAEn 2.500 milioi euro baino gehiago galtzen dira iruzurraren zulotik. Zerga iruzurraren aurkako borroka eraginkorra bultzatzea lehentasunezko helburua izango da.

Gure lanaren azken helburu nagusia, erabateko subiranotasun fiskala lortzea izango da, hemen eta gertutik har ditzagun zerga guzti guztiei buruzko erabakiak.

Ekintza zehatzak

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) Aurrezkiaren errentek ere beste errenta mota guztien tratamendu berbera izan dezaten, beste errentak dituzten tipo berberak aplikatzea proposatzen dugu, zerga oinarri bakarrean integratuz eta tipo progresiboak aplikatuz, %23tik hasi eta %49raino errenta mailaren arabera.

2. Sozietateen gaineko Zerga (SZ) Zerga honen progresibitatea bermatzeko, sozietateek lortzen dituzten irabazi edo mozkinak aplikatu beharreko tipo nominala progresiboa izatea proposatzen dugu, sozietatearen tamaina edozein izanda ere. Horrela, gehienez ere 200.000 euroko mozkinak dituzten sozietateen tipo nominala % 24 izango da. Hurrengo tramoan, 200.000 eurotik 1.000.000 eurora bitarteko mozkinak dituzten sozietateen tipo nominala % 26 izango da. Eta azkenik, urtean 1.000.000 eurotik gorako irabaziak edo mozkinak dituzten sozietateen tasa nominala % 28koa izango da.

3. Sozietateen gaineko Zergan (SZ) Ikerketa eta garapenari (I+G) lotutako kenkaria bakarra eta mugatua izango da. Benetan ikerketan eta garapenean inbertitzen diren kopuruengatik egin daitekeen kenkaria gehienez ere kuotaren % 25 izango da. Horrela, enpresa handienak zerga gutxiago ordaintzeko erabiltzen dituzten kenkari eta ihesbide gehienak ezabatuko ditugu.

4. Aberastasuna eta Fortuna Handien Zerga

Aurreko legegintzaldian Gipuzkoan indarrean egon zen Aberastasuna eta Fortuna Handien Zerga berreskuratuko dugu. Zerga honek gipuzkoarren % 1 aberatsenari eragiten dio soilik.

4.1 Ondarea edo aberastasuna kalkulatzeko garaian, ondare mota guztiak aintzat hartu behar dira, baita enpresen partizipazioak ere. Aurrekoaren kalterik gabe, enpresen partizipazio familiarak inbertsio produktiboak diren neurrian, %75ko hobari garrantzitsua aplikatu ahal izango dute (gaur egun enpresen partizipazioak salbuetsita daude, hau da %100 hobariaren antzekoa)

4.2 Benetan aberatsak direnek zerga gutxiago ordaindu dezaten aplikatzen duten ezkutu fiskala (escudo fiscal) onartezina denez, aukera hori eskaintzen duen artikulua kentzea edo ezabatzea proposatuko dugu. Aberatsenak bakarrik erabili dezaketen ezkutu fiskala aprobetxatuz, Gipuzkoako 38 pertsona aberatsenek 12,8 milioi ordaintzetik libratzen dira urtero. Batz bestek bakoitzak 408.316 euro gutxiago ordaintzen du urtero, ezkutuari esker.

5. Zerga Iruzurra eta elusioaren aurkako borroka eraginkorra.

Adituek diotenez, Euskal Autonomi Erkidegoan urtero egiten den zerga iruzurra 2.500 milioi euro baino handiagoa da. Gipuzkoan 800 milioi inguru. Euskal Ogasunek publiko egiten dituzten zerrenden arabera, iruzurgilerik handienak enpresa eta fortuna handiak izan ohi dira. Gizarte justuago eta berdina lortu nahi baditugu, ezinbestekoa da zerga iruzurra eta elusioaren aurka baliabide gehiago eta eraginkorragoak martxan jartzea.

Helburu horrekin, giza baliabideak eta baliabide teknikoak areagotzeaz gain, informazioa gurutzatuz, ikuskaritzak hobetuz eta nazio arteko eragiketarako arreta gehiagorik begiratu behar dira. Aldi berean, zerga paradisuarekin harremana duten pertsona fisiko eta juridikoen urratsak bereziki ikuskaritzara proposatzen dugu.

Bestalde, adituek aholkatu izan ohi dutena jarraituz, Zerga Iruzuraren aurkako Euskal Behatoki independentea bultzatuko dugu.

6) Udalentzat ere ikuskaritza zerbitzu publikoa

Udal zergetan, Ekonomi Jardueren Zergan bereziki, aldiro ikuskaritza lana burutzea garrantzitsua da. Horrela ez bada egiten, enpresek aitortutako balioak zaharkituak geratzen dira, enpresen artean ezberdintasunak sortuz eta udalentzat zerga bilketa galera handiak eraginez.

Arazoaz jabeturik eta konponbide eraginkorra martxan jarri asmoz, Gipuzkoako udalak eta Foru Aldundiko teknikariak lankidetzan udal zergen eguneratzea eta ikuskaritza lanak ondo kudeatzea helburu izango duen Ikuskaritza unitate edo lantalde berria sortuko dugu, udal zergak ikuskatzeko aukera publiko eraginkorra eskaintzeko.

Herri jasangarria

| | |
|---|----|
| Aldaketa klimatikoa | 28 |
| Natura eta natur baliabideen defentsa. Mendiak eta natur inguruneak | 29 |
| Energia | 31 |
| Hondakinak | 32 |
| Mugikortasuna | 34 |

ehbildu

ALDAKETA KLIMATIKOA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Aldaketa Klimatikoari buruzko 2015eko Parisko Gailurrean hartu ziren konpromisoak nola bete adosteko, 2018ko abenduaren hasieran Goimailako klima bilera (COP24) izan zen Polonian. Bilera honetan, arau eta gidalerroak aurrera eramateko Arau Liburua onartu zuten. Batzuentzat aurrera pauso txiki bat izan arren, argi dago oraindik oso urrun gaudela tenperatura igoera 1,5 gradura mugatzeko helburutik.

Beraz, politika eta neurri eraginkorrak hartu ahal izateko, kontutan hartu behar dugu zeintzuk diren isuri gehien sortarazten dituzten sektoreak: Energiak (%32), garraioak (%28) eta industriak (%22) isurien %80 sortarazten dute eta lehenengo sektoreak, bizitegiak eta zerbitzuen sektoreak %4. Beraz, argi dago ze esparrutan eragin behar da isuri mailak murrizterako orduan. Etxeko bonbilla bat kontsumo baxuko beste batengatik aldatzea oso ondo dago baina, oro har, energia kontsumoa murriztea eta eredu energetiko berriztagarria ezartzea askoz eraginkorragoa da.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Gure helburua aldaketa klimatikoa ikuspegi sistemiko eta transbertsala lantzea da, ez da ukitu berde bat ematea gaur egungo eredu ekonomikoaren ondorioei, baizik eta ekonomikoki, kulturalki, sozialki zein ekologikoki eragin negatiboa duen sistema neoliberal eta kapitalista hau eraldatzea. Aldaketa Klimatikoari buruzko 2015eko Parisko Gailurrean hartu ziren konpromisoak eta iazko abenduan COP24an onartu ziren neurriak inplementatzeko, orain arte eramaten ari diren politikak zuzendu behar ditugu. Guk, Aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan Gipuzkoa Euskal Herrian, Europan eta mundu osoan zehar aitzindari bilakatu nahi dugu. Hori dela eta, 2030 urterako Gipuzkoako isurien %30ko murrizketa helburu nagusi bezala hartuta, agintaldi honetan Berotegi Efektuko Gasen %20 murriztuko ditugu.

Ekintza zehatzak

- Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Aurkako lehenengo Foru Araua onartuko dugu, Batzar Nagusietako eta Foru Aldundiaren departamendu guztien partaidetza sutatuz. Aldaketa klimatikoaren aurkako borroka Gobernu osoaren lehentasuna bilakatuko da da.
- Zehaztu Gipuzkoak Aldaketa Klimatikoan dituen lan ildo lehentasunak eta modu transbertsalean garatu sail guztietan, ekintza zehatz eta neurgarrietan. Horretarako, dagoeneko unibertsitateetan eta ikerketa gune ezberdinetan eginiko azterketak kontuan izango dira.

NATURA ETA NATUR BALIABIDEEN DEFENTSA. MENDIAK ETA NATUR INGURUNEAK.

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Mendiaz eta natur inguruneaz ari garenean, natur baliabideaz, basoaz, mendiko abeltzaintzaz, enpleguaz, tokiko ekonomiaz, aisialdiaz, kulturaz eta paisaiaz ere ari gara.

Eremu hauen garapenean, epe motzeko etekin ekonomikoaren aldeko interesa gailendu da politika publikoetan. Natur baliabideen kontserbazio onerako ahalegin publikoa eskasa izan da hamarkadetan zehar, kaltegarria izan ez denean. Ondorioz, gune hauek bete beharreko funtzioak pobretzen eta natur baliabideen egoera kaskartzen ari da. Baso eremuetan, politika publikoa insignis espeziaren ustiaketa intentsiboan oinarritu da denbora luze. Monolaborantza honen ondorioz, gaur egun insignisaren landaketen %50etik gora gaixorik dago eta politika berrien beharra agerikoa da.

Natur baliabideei dagokionez, gure bizitza-asegurua den bioaniztasuna dugu, eta honen galera, klima aldaketarekin batera, mundu mailako ingurumen mehatxu nagusia da. Urari dagokionez, kalitate eta bolumen egokiak bermatu ahal izateko, ziklo osoan eragina duten jardura guztien gaineko hausnarketa sakona (basogintza, abeltzaintza, industria, turismoa, eraikuntza...) beharrezkoa da.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Helburu orokorra da gure mendi eta natur inguruneen funtzioak hobetzea eta areagotzea, eta bioaniztasunaren galera 2020rako etetea. Horretarako epe motz, ertain zein luzera begira ikuspegi ekonomiko, soziala eta ingurumenekoa uztartuko dituen planifikazio eta kudeaketa iraunkorrak ezinbestekoak dira.

Ildo honetatik, ura kalitate onean mantentzea eta bolumen nahikoa izatea kudeaketa publikoaren bidez, basoa ahalik eta anitzago eta osasuntsuagoa izatea, mendiko abeltzaintza jasangarria bultzatzea eta kultur ondarea mantentzea ere ditugu helburu. Honetaz gain, landa ingurunearen garapenerako hain garrantzitsuak diren eremu hauetako jardura ekonomikoak eta enplegua, ingurumenaren zaintzarekin uztartzea beharrezkotzat hartzen dugu.

Baso politika berriari dagokionez, baso ekosistema osasuntsu eta sendoak ezinbestekoak dira guztion bizi-kalitate egokia bermatzeko. Horregatik, mendiak zein natur inguruneen kudeaketan kontserbazioa eta bioaniztasunaren defentsa egitea beharrezkoa da. Horretarako, eremu publiko zein pribatuan basoaren funtzioen areagotzea ekarriko duen eta monolaborantza intentsiboa gaindituko duen politika berria ezinbestekoa dugu. Honetaz gain, basogintzan, ikerketa, dibertsifikazioa, bertako espezieen sustapena zein karakterizazio teknologikoa eta berrikuntza sustatzea, ditugu helburu.

Ekintza zehatzak

- Mendi publikoen kudeaketa jasangarria, askotarikoa eta gardena garatzea, abeltzaintza jasangarria, baso anitzak eta espezie autoktonoak zein biodibertsitatean oinarrituta, eta elikadura sistema osoan izan dezaketen ikuspegia landu, baita ere bideragarriak izan daitezken nekazaritza proiektu berriak basoan integra daitezkenak. Basoaren ikuspegi mutifuntzional hau gizarteratuko da, gizartea eta basoaren arteko harremana berreskuratzeko. Honetaz gain, natur parkeen larreen ordenazio planak burutu eta horren araberrako kudeaketa aurrera eramatea, tokiko eragileen adostasuna bilatuz.

- Baso eremu pribatuetan, basoaren funtzioak areagotuko duen kudeaketa publiko jasagarria aurrera eramateko kontratuak diseinatu eta adostu jabeekin, kudeaketan jabeen inplikazio maila ezberdinak ahalbideratuz.
- Baso dekretu berria non baso naturala eta bertako espezieen landaketek bultzada berezia izango duten eta baso ingurumeneko zerbitzuak bultzada izango duten, bere kudeaketa alderdiak zehaztuz eta tokiko ezaugarri ekologiko, ekonomiko eta kulturalak haintzat hartuz.
- Ikerketagune berriak zabaltzea, espezie dibertsifikazioa eta baso-espezie autoktonoentzat: zur autoktonoko espezieen karakterizazio teknologikoa, aprobeixamendu mikologikoa, espezie autoktonoen hobekuntza genetikoa, basoaren erabilpena tokiko egur beharretara egokitu, eta abar.
- Aukerak aztertzea babes bereziko eremu berria gehitzeko, batez ere itsas ingurunean eta kostan, eta lege horiek EAEko korridore ekologikoen sarera gehitzea.

ENERGIA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Gipuzkoak duen menpekotasun energetikoa ia erabatekoa da, %90ekoa baino handiagoa. Energia burujabetzan ere aurrerapausoak egitea ezinbestekoa da. Eredu ekonomikoarekin estuki lotuta dagoen energia eredu atzerakoia dugu, xahuketan eta etengabeko hazkundean oinarritzen dena.

2011/2015eko agintaldian, prozesu parte-hartzaile garden eta zabal baten ondoren, Gipuzkoako Energia Foru Plana onartu zenetik, egia da azken agintaldi honetan aurrerapen gutxi egon direla. Plan horretan onartu ziren ekintzak sustatu izanez gero, egun oso bestelako egoeran egongo ginateke. Energiaren alorrera egokitutako irizpide sozialak, ekonomikoak (publiko nahiz pribatuak) eta ingurumenekoak orekaz bateratu behar ditugu.

Erregai fosil merkeen agorpena helduta, Gipuzkoak ere egoera honi heldu behar dio, beste sistema iraunkorrago batera biratuz. Ezin ahaztu Europar Batasuneko herrialdeok konpromiso hauek ditugula, besteak beste: berotegi-efektua duten gasen isuriak %20 murriztea, kontsumo energetikoa %20 murriztea, eta kontsumitzen den energiaren %20ak energia berriztagarrietan izatea iturburua.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Bidezko trantsizio energetikoa eta jasagarria gakoa da Klima Aldaketari aurre egiteko. Zentzu honetan Gipuzkoak aurrerapauso kualitatibo handia eman behar du energia berriztagarriak, autokontsumoa eta eraginkortasun energetikoa zein aurrezte energetikoa bultzatuz. Europako Batasunak ezarritako helburuak kontuan hartuta, Gipuzkoan energia kontsumoaren %20 murriztu eta energia kontsumo gordinaren %20a berriztagarria izatea lortu behar dugu. Era berean, energia ondare publikoa eta estrategikoa bezala kudeatzea funtsezkoa da. Horretarako, irizpide ekonomiko pribatuen menpean erregai fosiletan oinarritzen den gaur egungo eredia eraldatzen hasiko gara, erabakiak, kostuak eta onurak gizarteratuz eta energia berriztagarrietan oinarritzen den eredu berri bat ezarri.

Beraz, energia berriztagarrien aldeko neurriak abian jartzearekin eta kontsumoaren murrizketarekin batera, ingurumen ikuspegitik zein bideragarritasun ekonomiko eta sozialetik, energia berriztagarrietan oinarritutako sistema energetikoa abiatzea dugu helburu.

Ekintza zehatzak

- Energia publikoaren kontsumoa eta Kontratazio publikoetan energiaren %100 jatorri berriztagarrietatik izatea.
- Energia-kontsumoa murriztea garraioan: ibilgailu elektrikoaren erosketaren aldeko jauzia emango dugu. Autobus berrien erosketan eta, oro har, edozein ibilgailu berri erosketan, elektrikoak lehenetsiko ditugu, errekontza-motorrekoak ordezkatuz.
- Sektore produktiboetan energia efitzientzia zein berriztagarrien inbertsioatarako 12 milioi bideratuko ditugu.
- Pobrezia energetikoari aurre egiteko, gizarte-bonuak moldatu kontsumitzaile ahulen errealitatea egokitzeko. Arazo ekonomikoak dituzten familiei hornidura mozketak egitea debekatzea.
- Energia-pobreziaren aurkako Plan Integral bat sortu, zeinek egoeraren diagnosian oinarrituta, kontsumitzaile ahulen nortasuna argi eta garbi identifikatzen duen, eta neurri prebentibo eta aringarriak barneratzen dituen. Energia-pobrezia errotik desagerraraztea, herritarren osasun eta ongizatean eragiten duen desberdintasun sozial eta ekonomikoa bat desagerraraztea da.

HONDAKINAK

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Hondakinak birziklatzeko aldeko jarrera eta erraustegiaren aurkako borroka izan da Gipuzkoaren ezaugarria azken 20 urte hauetan. Egia da XX. Mendearen erdialdean teknologia zaharkitu hori Herrialde askotan hautatua izan zela, nahiz eta gaur egun era bat frogatuta dagoen kutsakorra dela. Gaur egun, berriz, Europatik datozkigun zuzentarau berri guztiak, 2018ko apirilera Ekonomia zirkularrekoa izan ala 2018ko abenduko Plastikoa izan, beste norabide bat markatzen ari dira: birziklatzearen aldeko eta erraustegiarik gabeko Europa berri bat.

Zaborra arazo mundiala da egun, plastikoak itsasoetan sortzen ari diren arazoa ikur adierazgarriena izanda. Horrekin batera, Europa lehengai gutxiko Kontinentea da eta, beraz, hurrengo urteetan hondakinen kudeaketa iraunkorraren aldeko politikak indar handiz ezarriko dira. Urte gutxi barru eraldaketa handiak etorriko dira eta Gipuzkoak aukera ezin hobea dauka Kontinente osoaren Lurralde eredugarrietariko bat izateko.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Europa mailan aitzindaria izango den hondakinen kudeaketa aurrera eramango dugu. Horretarako, 2018an Europako Parlamentuak onartutako Ekonomia Zirkularreko eta Plastikoen zuzentarauak ontzat hartuko ditugu, hondakinen kudeaketarako hierarkia zorrotz betetzen: hondakinen sorkuntza murrizten, berrerabiltzen eta birziklatzen. Era berean, Europak ezarritako %65eko birziklapen tasa Gipuzkoako Mankomunitate guztietan beteko dugu.

Bestaldetik, URBASER multinazional txinatarrari gure hondakinen kudeaketa esleitu izanak ekarriko digun oztopoa kontuan hartu beharko dugu. Hori dela eta, kontratu hori zorrotasun juridiko osoz aztertzeaz aparte, publikoa egingo dugu, gipuzkoar guztiek jakin dezaten EAJ/PNV-PSEk zein baldintzapean pribatizatu zuen gure hondakinen kudeaketa publikoa. Azterketa juridikoa eta ekonomikoa egin ondoren, gipuzkoarrei hitza emango diegu erabaki dezaten ze nolako hondakinen kudeaketa nahi duten: Erraustegia barnebiltzen duena ala erraustegirik gabeko kudeaketa osasuntsua eta jasangarria.

Ekintza zehatzak

- Gipuzkoak ez du erraustegia plantarik behar. Erraustegia eraikitzeak instituzioetako finantzak eta, horrenbestez, herritarrak hipotekatuko ditu hurrengo 35 urteetan, aipatu gabe ingurumenean eta pertsonen osasunean eragingo dituen kalteak. Hori dela eta, PNV eta PSEk URBASER multinazional txinatarrarekin sinatutako kontratua aztertu ondoren, gipuzkoarrei hitza emango diegu erabaki dezaten ze nolako hondakinen kudeaketa nahi duten: Erraustegia barnebiltzen duena ala erraustegirik gabeko kudeaketa osasuntsua eta jasangarria.
- Europako hondakinen hierarkia-printzipioaren aplikazioan eta ekonomia zirkularrean oinarritutako Europako zuzentarauekin konprometitzen gara. Horrenbestez, onartu berri den Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako II Plana zaharkituta dagoela deritzogu; bertan agertzen diren aurreikuspenak eta proposamenak desfasatuak egoteaz aparte, asmo txikikoa da. Gipuzkoako gaur egungo errealitateari lotutako Plan berria egingo dugu, parte-hartze prozesu erreale eta zabal bat garatuz.
- Europak ezarritako %70eko birziklapen tasa agintaldi honetan Gipuzkoan eta Gipuzkoako Mankomunitate guztietan lortzea.

- Hondakin zatien birziklapen tasak hobetzearekin batera, gaikako bilketa zabor tipologia gehiagoetara zabaltzera konprometitzen gara eta, baita ere, den-denok (enpresak, dendak, ostalaritza, zentro publikoak, etxeak...) jatorriko sailkapenean sakontzean. Bide horretatik, pixa-oihalak eta konpresak birziklatuko duen punta-puntako instalazio berria Gipuzkoan instalatuko dugu.
- Zabortege kutsakor berrien irekiera edo eraikuntza arbuiatzen dugu. Edozein zabortege motaren beharra gutxitzeko esfortzua egingo dugu, gure helburua birziklatu edo konpostatu ahal den zaborra ez isurtzea delarik, ezta tratatu gabeko hondakinak ere. Birziklatu ezin den hondakina inertizatuko dugu.

MUGIKORTASUNA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Aldaketa klimatikoari aurre egiteko eta Gipuzkoa osasungarriagoa izateko ezinbestekoa da mugikortasun eta bide-azpiegitura jasangarriak izatea. Gertutasunaren printzipioaren inguruan ardaztu behar da Gipuzkoako mugikortasun-politika, ingurumenarekiko jasangarria eta sozialki justua izan dadin.

Egia da garraio publikoaren aldetik jauzi kualitatibo oso inportanteak eman direla, adibidez, MUGI txartela ezarpenarekin, baina egia ere bada oraindik askoz gehiago egiteko dagoela. RENFE ez dago MUGIn integratuta, autobus zerbitzuetan murrizketak egon dira, autobusen arteko aldaketak ez dira doakoak, Gipuzkoako bidegorrien sareak osatu gabe jarraitzen du... Ondorioz, auto pribatuaren hazkundeak aurrera jarraitzen du eta dituen ingurumen-mugak ez zaizkio berrezartzen.

Argi dago mugikortasun beharra ez dela inoiz etengabeko errepide eraikuntzarekin aseko. Eskaria eta eskaintza hobeto egokitzea edo mugikortasun eskaria sortzen duen presioa gutxitzea lortu beharra dago. Zalantzarik gabe, beste eredu batera biratu beharra dago, benetako irisgarritasunaren eta mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua eginez.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Gasolina edo dieseletan oinarritutako auto pribatuaren mugikortasuna eraldatu behar da. Ezinbestekoa da mugikortasuneko inbertsio politika gizarte-errentagarritasunaren printzipioan oinarritzea, ingurumena eta iraunkortasun parametroak ahaztu gabe.

Eguno ereduaren mugak begi bistakoak dira eta ekonomikoki, sozialki eta ingurumenarekiko jasangarria izango den eredu bat aldarrikatzen dugu: lurralde antolaketa arduratsu baten ondoriozko garraio plan integral iraunkor bat diseinatu behar dugu, garraio publikoari, oinezko zein bizikletaren mugikortasunari lehentasun osoa emanez, egun ditugun azpiegiturak kontuan izanez eta auto pribatuaren erabilera gutxitzeko neurri eraginkorrak hartuz.

Ekintza zehatzak

- 2015-2019ko legealdian Lurraldebuseko zerbitzuetan egindako murrizketak gainditzea, bereziki, Buruntzaldean eta Debagoienan egin direnak kontuan hartua.
- Garraio publikoaren tarifak merkatzea: ibilgailu-aldaketa doakoa izatea eta deskontu-sistema handiagoa. Mugi txartelarekin, 50. Bidaiatik aurrera doakotasuna.
- Bizikleta Gipuzkoako garraioaren ikurra izatea. Horretarako, 2011/2015 agintaldian aho batez onartutako bizikletaren plangintza garatuko dugu, gaur egun bidegorrien eraikuntzarako urtero jarritako dirua hirukoiztuz. Besteak beste, Irun-Donostia, Zestoa-Zumaia etea Debagoiena-Maltzagako bidegorriak garatuko dira.
- Trena, autobusarekin batera, Gipuzkoako garraio publikoren ardatza izateko Espainiako Gobernuari RENFEren zerbitzuak eta trenbidearen berehalako esku aldaketa eskatuko dugu:
 - Eusko Jaurlaritzak Eusko Treneko trenbidea bikoizteko.
 - RENFEk irisgarritasun arazoak dituzten geraleku guztiak egokitzeko.
 - Donostiako Riberas auzoko tren-geltokia eraikitzeke, Eusko Tren eta RENFEren zerbitzuak lotuz.
 - Gaitasun handiko errepideek gure lurraldean eragin dituzten ingurumenean zein osasunean kalteak leuntzeko hainbat neurri eramango ditugu aurrera, hala nola, fauna bideak eraikitzeak eta soinu plakak zein horma begetalak jartzea.

Herri aurreratua

| | |
|-------------------------|----|
| Elikadura burujabetza | 36 |
| Industria | 38 |
| Merkataritza | 39 |
| Zerbitzuak eta turismoa | 40 |

ehbildu

ELIKADURA BURUJABETZA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Mundu mailan azkeneko hamarkadetan elikagaien kontrola esku gutxietan pilatzen joan da negozio erraldoi bilakatuz. Elikagaien ekoizpena, bere eraldaketa, banaketa eta merkaturatze sistemak ingurumeneko arazo ugari eta bidegabekeri sozialak eragiten ari dira munduan barrena.

Euskal Herrira ere aspaldi iritsi dira nekazaritzako politika neoliberalak eta elikagaien merkatuen liberalizazioa zein globalizazioaren ondorioak. Nekazaritza sektorearen “modernizazioan”, baserriak, arrantza iraunkorra, dibertsifikazioa eta gertuko harremanak baztertzen joan dira, Europar Batasunetik, Madrildik eta Euskal Herriko instituzioetatik, ekoizpenaren industrializazioa eta espezializazioa bultzatu den bitartean. Politika hauen ondorioz, gure lehenengo sektorea indartua atera beharrean, lanpostuen galera eten-gabea, errelebo falta, ingurumenaren suntsiketa eta orokorrean galbidera daraman krisi kronifikatua sartuta dago. Elikagaien banalizazioa bultzatu da eta elikadura burujabetzak duen garrantzi estrategikoa oharkabea pasa-tzen ari zaigu.

Bestalde, herritarren artean gero eta handiagoa da elikadura eta egungo elikadura sistemak duen eraginaren gaineko kezka eta honek aldaketa klimatikoarekin eta elikadura sistemaren kontsumo eta banaketa eredu kapitalistarekin, maila globalean zein lokalean, dituen loturak diagnosiaren elementu garrantzizkoak dira elikadura gaia ikuspegi sistematik aztertzeko.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Herri gisa elikadura burujabetza sakontzea eta kalitatezko elikadurakiko herritarrok dugun eskubide subjektiboa bermatzea dira helburu nagusienak, nekazaritza eta arrantza iraunkorra eredu oinarri hartuta, elikadura sistema osoa kontuan hartzen duen elikadura politika osoa eraikiz.

Elikagaien kalitatea eta jatorria, baserriarren eta arrantzaleen bizi baldintza duinak, erreleboa, sustatzen duten elikadura kultura eta naturaren zaintza lehenetsiko dituzten nekazaritza politika berriak premiazkoak dira Euskal Herrian. Irtenbide iraunkorrak ekarriko dituzten politikak: lurra, itxasoa, ekoizpenaren transmisioa, formazioa, lanpostu duinak, agroekologiaren sustapena, sentsibilizazioa, bidezko laguntzak, jantoki publikoak... Hala-ber, kalitatezko elikaduraren garrantziak, osasunean, ingurumenean, hezkuntzan, kulturen edo ekonomian zehar lerroko politikak eskatzen ditu.

Honetaz gain, herri ikuspegiko planifikazioari ekiteko garaia da: lurralde kohesioa eta orekak bermatuz, herrialdeen arteko harremanak bultzatzea beharrezkoa da, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harremanak lehenetsiz banaketa eredu komertzialak horretarako tresna izanik eta ez helburu.

Elikadura sistemaren parte garen guztion ahalegina ezinbestekoa da, elikadura sistema iraunkorragoa, integratzailea eta bidezkoagoaren bidean urrats objektiboak emateko. Legealdi honetan, eskualde guztietan tokiko elikadu-ra sistemak garatzeko apustua egin nahi dugu, baserriarrak zein arrantzale-ak eta herritarrek elkarrengana gerturatuz, kalitatezko elikadura demokrati-zatuz eta sortzen diren ereduak modu parte-hartzailean eta partekatua gara-tuz eta ekonomia iraunkorra landuz lehen sektorearen inguruan, baserriarra izatea lan aukera erreala bihurtuz.

Ekintza zehatzak

- Gipuzkoako baserrien erreleborako panorama zehatza ezagutzea eta transmisioa ahalbideratzeko programa berri bat martxan jartzea. Programa honetan arreta esplizitua jarriko da emakume baserritarren egoerari eta eurak sorturako ondareari balio ematea eta balioan jartzea. Gipuzkoako Aldundiak bitartekari lanak egingo ditu baserrien transmisioa baldintza egokietan emateko eta lurrari lotutako proiektu dibertsifikatuak sustatzeko.
- Gipuzkoako lurraren artifizializazioaren egoera osoa ezagutu, dagoen joera iraultzeko beharrezko diren tresnak jorratuz eta egun daudenak modu errealean aktibatuz, hala nola lur funts publikoa. Horretarako aurrekontuaren ehuneko jakin bat lurra erostera bideratzea.
- Bidezko laguntza publiko zein aholkularitza linea berriak martxan jartzea: dibertsifikazioa, tokiko produkzio jasangarri eta ekologikoa, tokiko barietate eta arrazak, eta abar, sustatuz, besteak beste, eta bereziki zailtasun naturalak dituzten guneei mesede eginez.
- Unibertsitatea, Ikerketa, Nekazaritzako prestakuntza-zentroen eta baserritarren arteko lankidetzak sustatzea lurrari loturiko nekazaritza iraunkorra eta tokiko premietara egokitutako eta nekazaritza jasangarriko eredu baten bultzatzaile den I+B+Gko eredu bat bultzatzeko.
- Udalerrri elikadura estrategien garapena bultzatu, elikadura burujabetzako trantsizio prozesuak eraikitzeke baserritar eta elikadura sisteman inplikaturik dauden eragile desberdinekin. “Elikadura burujabetza herri sare” baten eraikuntzarantz pausoak eman non beharrezkoak diren azpiegiturak, erosketa publikorako oinarri sozial eta juridikoak (jantoki kolektibo publikoak), aholkularitza eta trebakuntza prozesu egokituak landuko diren.

INDUSTRIA

Diagnostikoa, egoera-ren irakurketa

Ezinbestekoa da politika industrialarekiko sentikorrek diren arloen arteko koordinazioa ematea: fiskalitatea, finantzaketa, gai diren pertsonen presta-kuntza, azpiegitura lehiakorrak... Industria-plitika eraginkorrek eskatzen du erakunde-ingurune desberdinen artean eredia partekatzea.

Industria-enpresak izaera pribatukoak dira gaur egun. Lankidetzaren publiko-pribatua oinarritutako politikak erraztu egiten du baliabide gehiago erabil-tzea eta ezartzea, eta sendotasunez adostutako helburu eta jardura osagarriak dituen industria-politikaren koordinazioa ere bai; horrela bada, industria-sektorearen emaitzak indartuko lirateke, eta herrialdeari eta herritarren bizitza-kalitateari dagozkien emaitzak zabalagoak ere bai.

Behar beharrezkoa da gure industria sektorea jasaten ari den beherakada iraultzea, eta horretarako Industria Politika eraginkor bat martxan jarri behar dago, eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko adostasunetatik abiatuz.

Teknologikoki aurreratua eta produktiboki espezializazioan dibertsifikatua izango den ehun industrialia izan behar dugu helburu, sozialki bidezkoa eta fiskalki arduratsua izango dena, ezinbestean ingurugiroarekiko jasagarria eta nola ez, gure lurraldean orekatua.

Ekintza zehatzak

Nagusi den industria-eredua eraldatzea beste eredu baterako bidean, lurraldean errotua, teknologikoagoa, ingurunearekiko errespetu handiagoa duena, energia gutxiago kontsumitzen duena eta langileen partaidetza handiagorekin.

- Lurralde eta gizarte kohesioa bultzatuko dituen programa bat martxan jartzea, garapen agentzien bitartez eskualde bakoitzak bere proiektu estrategikoak garatzeko bitartekoak esleituz (40 milioi €).
- Industria sareen garrantzia sustatzeko eta maila teknologikoan aurrera egiteko Lanbide Heziketa zentro, Unibertsitate eta Ikerketa Zentroetan aurrera eramaten den ikerketa enpresa ertain eta txikietara transferitzeko programa abiaraziko dugu.
- Klausula sozial eta teknologikoak ezartzea enpresa edo kooperatibei laguntza instituzionalak emateko programetan, horretarako, besteak beste, kontratazio arduratsua sustatzeko eta berrikuntza pizteko foru-arauak garatuta. Ekonomia sozialeko inizatibak lehenetsiko dira.
- Herrialdeko emakumeen, 45 urtetik gorakoen eta gazteen enplegarritasuna sustatzeko programa berezituak abiaraziko ditugu. Ekintzailetasun eta autoenplegurako programa berritzaileak abiaraziko ditugu, gazteen eta emakumeen enplegarritasuna helburu, lurraldearen beharrezkoak, oreka eta oinarritako irizpideak kontuan izanik (integrazioa, iraunkortasuna, aldaketa klimatikoa,...)
- Enpresa txiki zein mikroenpresen garapena teknologikoa sustatzeko, 16 milioi eurotako laguntzak bideratuko ditugu. Herri Aurreratua

MERKATARITZA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Barne Merkataritzaren sektorea oso egoera kezagarrian dago gure herrian, bereziki txikikazko merkataritza. 2008 eta 2018 tartean merkataritza establezimendu kopurua %16 murriztu da. Donostialdean, adibidez, 2008-18 epean 900 denda galdu dira.

Egoera horren atzean faktore eta arrazoi ezberdinak badaude. Alde batetik, 2008an hasi zen krisiak populazioaren erosmen ahalmenaren murrizketa ekarri zuen. Beste aldetik, krisiaren aitzakiarekin, tokiko merkataritzaren aurka joaten diren neurri liberalizatzaileak indarrean sartu dira, betiere sektoreko handien mesedetan. Donostia inguruan, ekialdetik mendebaldera, ez dira gutxi proposatu diren egitasmoak: Zaldunborda, Illunbe, Garbera, Belartza, eta beste hainbat. Gutxi gorabeherako estimazioa eginda, esan daiteke horiek gauzatuz gero beste 210.000 m² gehiago okupatuko liratekeela merkataritza-gune handietarako. Donostialdea, de facto, korridore komertzial handi bat bihurtuko litzateke. Hirugarren tokian aipatu behar dugu berrikuntza teknologikoa, EAEko salmenten %20 ordezkatzeko baitu e-commerce fenomenoak dagoeneko.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Udalekin, eskualdeko mankomunitate edo garapen agentziekin eta gobernu autonomikoen inplikazio ekonomikoaz, herrialdeko tokiko merkataritza eraberritzeko eta bultzatzeko plan estrategikoa burutzea dugu helburu. Merkataritzak duen pisu ekonomikoaz gain, merkataritza txikiak gizarteari ekartzen dizkion beste balio erantsiei eustea ezinbestekoa da: hiri eta herrien kaleei bizitasuna, argitasuna, segurtasuna... ematen die, sare sozial fisikoak sendotzen ditu, ezinbestekoak diren produktuen eskuragarritasuna berma-tzen du.

Bertako merkataritza bertako produktuen salmentarekin batera sustatzea dugu helburu, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko lotura gertuko merkataritza-tzaren bidez burutuko delarik.

Langileen prestakuntza, teknologia berrien aplikazioa eta etengabeko berri-kuntza besteren artean, abiatu beharreko baliabideak dira. Gainera, eskualdeko arteko elkarlanak, bai eta merkataritza edota ostalarien elkarrekin bultzatzen dituzten egitasmo sozial eta kulturalak bultzatzeak, merkataritza logika sozialaren bidean jarri beharko gaituzte.

Dimentsio ekonomiko eta sozialagatik merkataritza sektore estrategikotzat jo behar dugu, zalantzarik gabe. Kuantitatiboki eta kualitatiboki hain ga-rrantzitsua den sektore ekonomiko batek instituzioen aldetik arreta oso be-razia merezi eta behar du, eta are gehiago arestian esan dugun moduan ego-era oso larrian baldin badago.

Ekintza zehatzak

- Laguntza-ildoak martxan jartzea saltoki txikia mantentzeko eta jasagarriak izan daitezen, gune degradatuen edota herrigune historikoen biziberritzea eta merkataritza-garapena bereziki azpimarratuta.
- Klausula sozialak sartzea Administrazio Publikoaren erosketetan, irizpide sozialak eta ingurumeneko bidez, tokiko dendei lehentasuna emanez.
- Merkatalgune handi berriei moratoria. Lur eremu industrialak terziazatzen dituzten berkalifikazio urbanistikorik ez onartzea. Tokiko lurralde antolamenduko planen bidez saltoki txikien ezarpena erraztea.
- Merkataritzako zuzendaritza berriaren sorrera aztertu eta Gipuzkoako Merkataritzako Mahaia eratu merkataritza eredu ezberdinen zein Toki Entiteen Plan Orokor berrien eragina aztertzeko xedez. Mahai honetan merkataritza jarduerarekin zerikusia duten eragileek parte hartuko dute, hala nola, merkataritzako eragile ezberdinak, nekazaritza zein langileen eragile eta sindikatuak, kontsumitzaile elkarrekin eta eragile ekologistak.
- E-Commerce-ren enpresen (Amazon eta antzekoak) fiskalitatea hobetzeko aukerak aztertzeko Aldundiak/Jaurkitze Batzorde misto bat sortzea.

ZERBITZUAK ETA TURISMOA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Langile okupatuak %15-20 autonomoak/ekintzaileak dira, pisu handia dute sozioekonomian. Konkreteki EAEn autonomoen tasa %19koa da, 2016an 175.000 langile, hauetatik 55.000 inguru kooperatibistak direlarik, eta gainontzekoen artean autonomo gehienak zerbitzutan (komertzioa, ostalaritza, gremioak, ...) daude.

Beraiei zuzenduriko politika publikoak eskasak dira, eta ekonomian duten pisua kontutan izanik, beharrezkoa da espresuki beraien zuzenduriko neurriak lehentasunez martxan jartzea.

Oso kezagarria da azken urteetan hainbat sektorek bizi duten egoera: langileek pairatzen dituzten lan baldintzak kaxkarrak dira, negozioak etengabe ixten ari dira, ez dago erreleborik, handiak txikiari ez dio espaziorik uzten,... egoera hau irauli beharra dago.

Turismoari buruzko politikak planteatzeko garaian, lurralde bezala ditugun helburuak garbi zehaztea ezinbestekoa da: ikuspegi ekonomikoa, soziala, kultural eta ingurumenik zer nolako jarduera eredu bultzatu nahi dugun, zer ekaini nahi diogun turistei, eta zer ekarpen espero dugun lurraldearentzako turismo jardueratik. Ildo honetatik, lurraldearen garapen iraunkorarekin bat etorriko den turismo jarduera behar dugu, lurraldeko oreka soziala, ekonomikoa eta kulturala errespetatuko dituen.

Ekintza zehatzak

- Lurraldeari buruzko kanpainen "Gipuzkoa" izena berreskuratu dute. Euskara eta euskal erreferentzialtasunari dagokionez, turismo plangintza bat egitea beharrezkoa da, hemengo enpresaburu eta langileentzako, euskarari balioa emateko xede. Turismo-giden aldetik, horietan adieraztea eta nabarmentzea Gipuzkoa Euskal Herrian dagoela, hau da, euskal kultura duen eta euskaraz hitz egiten den herrian, euskara elementu berezi eta integratzailea izanik.
- Zerga turistikoaren ezarri, lurraldeko udalen zerga hori kobratzea ahalbidetzen aldera. Honetaz gain, turismo – jardura batzuetako zerga-iruzurraren aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuak iruzurra kontrolatzeko neurriak hartzea dagokio. Izan ere, kontrolari esker, jardura turistikoak sortutako etekinak herritar guztion mesederako izango dira.
- Turismoko langileei begira, Gipuzkoako Aldundiak behin-behineko lana eta baldintza txarrak saihesteko behatoki bat sortzea proposatzen dugu, sektoreko sindikatuarekin batera. Baldintza sozial duinak bermatzen dituzten establezimenduentzako ziurtagiria bideratuko dugu.
- Gastronomiari dagokionez, bertatik bertarako zirkuitoak bultzatu kalitatezko tokiko elikagaien erabilera sustatzeko. Baserriko produktuetan oinarritutako elikagaien eskaintza sustatuz maila guztietako jatetxeetako jabeekin.
- Genero-ikuspegia daukaten diagnostiko partizipatiboak egitea langile autonomoen errealitateari buruz eta plan integral eta asmo handikoak martxan jartzea errealitate horri aurre egiteko, hainbat neurri barnean hartuta, hala nola kolektibo prekario eta kalteberentzako laguntzako eta etengabeko aholkularitzako neurriak, lankidetzaren bultzatzea, asoziazionismoa eta langile autonomoen arteko aliantzak, eta abar.

Herri aurreratua

| | |
|---------|----|
| Kultura | 42 |
| Kirola | 43 |

ehbildu

KULTURA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Egun Gipuzkoako Aldundiaren Kultur sailak daraman politika honako ardatz nagusietan laburbildu dezakegu:

- 1.-Azpiegitura handietan oinarritzea, Tabakalera batez ere. KM-rako egitasmo garbirik ez dauka. Balentziago museoa...
- 2.-Kultur egitasmo gehienek turismoa dute helburu, Pasaiaiko Itsas Jaialdia edo Balentziaga museoa esaterako. Honek ekartzen du Gipuzkoako biztanleria turisten maila berean jartzea.
- 3.-Kulturaren azpisailaren aurrekontua milioi bat euroko jaitsiera izan zuen 2017ko aurrekontuetatik 2018ko aurrekontuetara.
- 4.- Kultur eragile zein sortzaile eta artistekin ez da inolako kultur politika adosten, aldiz, egitasmoak egiten dira horiek aitzakia hartuta, baina euren parte hartzerik gabe.
- 5.-Mikromezenazgoek eta mezenazgo legeak ez dute kulturaren egoera hobetuko nabarmen, aldiz, instituzioaren betebeharrak ekonomikoak sormen lanak bultzatzean ekidin egiten da, horren froga lehen aipatutako aurrekontuen jaitsiera.
- 6.-Lurraldeko udalekin ez da inongo harremanik bideratzen lurraldean inongo kultur politika komunak garatzeko.
- 7.- Artista eta sortzaileen prekariedade izugarria.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Kultura ondasun sozial gisa azaldu behar da, alegia, jendartearen eta herritarren bizi kalitatea hobetzen laguntzen duen sormen humanoa. Ezkerraren betiko eskaera izan da herritarren kulturarenganako irisgarritasuna bultzatu behar dela, honekin batera ere sormen artistikoa eskubide unibertsal gisa hartzea. Honek esan nahi du kultur politikak honetan oinarritu behar direla.

Gure lana halako helburu orokorrak gauzatzen ahalegintzea litzateke, instituzioek herri kultur eragileekin zein sortzaile, artista eta bestelako eragileekin elkar lana bultzatuz. Kultur azpiegiturei dagokionez gestio partekatutako bideratu beharko genukeen. Lurraldean ematen diren kultur dinamikak mapa bat osatzea eta elkarren arteko lankidetzak bultzatu instituzioetatik, bakoitzaren autonomia mantenduz. Sortzaile eta artisten prekariedadeari aurre egin beharko zaio horretarako eskura dauden baliabideak erabiliz. Beraien lana ere ezagutarazi eta balio erantsi gisa aldarrikatu. Sortzaile izan ez, baina kultur gintzan aritzen diren langile kontratatuen lan baldintza duinak aldarrikatu. Externalizazioak ekidin.

Ekintza zehatzak

- Gipuzkoako Aldundia eta Udalen arteko kultur koordinazioa bultzatu kultur dinamika komunak bideratzeko.
- Euskara hutsezko sormen artistikoari hoberi fiskalak.
- Kultur azpiegituren gestio partekatutako, instituzioak eta kultur eragileen artean.
- Lurraldeko sortzaile eta artisten prekariedadearen kontrako politika fiskalak eta bestelakoak.
- Lurraldeko kultur ondasun materialak eta inmaterialak gipuzkoarren artean ezagutarazi eta sustatu.
- Gipuzkoan egiten diren jaialdi eta kultur egitasmo handiak gipuzkoarrak helburu.
- Gipuzkoa kultur lurralde gisa azaldu.
- Kultur aurrekontuak handitu.

KIROLA

Diagnostikoa, egoeraren irakurketa

Hego Euskal Herriko 10 herritarretik 7 sedentario dira, eta jendartearen %40aren mugikortasun premiak ez dira oso aintzakotzat hartuak izaten kirol-politiken garapenean. Gainera, kirola ez dago krisi sistemikotik salbu; bere garapena kirol-egitura eta jardueretan zentratuta egiten du; eta ez kirolari eta pertsonak ardatz hartuta.

Eraldaketa piztu, puztu eta poztu behar dugu. Balioen berreskuraketarekin hasi behar dugu. Eta EH Bilduk indartu, lehen lerroan jarri nahi dituen baloreen artean, aurkitzen da: **AKTIBOA**. Pertsona aktiboa, ekimena duena, aldarte bizikoa eta bere jardutean bizipozez diharduena. Baina, aktibo izateko modu nagusietako bat fisikoki aktiboa izatea behar du.

Kirol politika berriak aniztasunaren tratamendu berezi eta berezitua behar du txertatu. Horretarako, gure lan filosofian eta moldean aldatu behar dugu. Administrazio maila guztietan, eta tokian tokiko dagoen kirol organoaz haratago, sail guztien jardunean txertatu behar da mugimenduaren aldeko kultura irizpide bateratua eta integrala. Alor guztietan aktibatu behar dira estrategiak herritarrek bizitza aktibo batean murgiltzeko topatzen dituzten oztopoak identifikatu eta hura gainditzeko baliabideak emateko. Azken finean, kirola eskubide bilakatu nahi dugu.

Helburu orokorrak, gure lanaren norabidea

Kirol kontzeptu mugatu batetik mugitzen den gizarte aktibo bat sustatzera pasatzea dugu xede. Gizakiaren baitan dago mugitzea eta gure asmoa herritar aktibo, eraldatzaile, emantzipatzaile eta kritikoa sustatzea bada, gure kirol politika bide horretatik joatea baino ez du, eta kirola gizarte eraldaketarako oso aintzat hartu behar dugun tresna da, herritarrak atxikitzeko, hunkitzeko, erakartzeko, inplikatzeko eta eraldatzeko duen gaitasunagatik. Eta Euskal Herriko izaeran eta kulturen duen pixuagatik.

Ekintza zehatzak

- Genero-berdintasunean eta aniztasunean oinarritutako kudeaketa-ereduak ezartzea lurraldean/hirian diharduten kirol-erakundeetan, eta lankidetzazko hitzarmen bidezko harremana dagoen erakundeetan.
- Esku-hartze berehalakoa eta urgentea behar duten kirol modalitate guztiekin hitzarmenak sinatzea. “Garena eraikitzen laguntzen diguten” eta hil edo biziko egoeran dauden kirolak dira: euskal pilota, herri-kirola, arrauna, txirrindularitza, eta abar.
- Kirol-jarduera inklusiboak eskaintzea, eskola-orduko eta eskola-ordutik kanpoko helburuak pedagogikoak izatea, eta balio eta ikuspegi berak partekatzen dituztela bermatuta.
- Kirol anitzeko praktika bultzatzea, presio lehiakorra saihestuta, mutilak eta neskek nahastuta eta kultura-aniztasuna kontuan izanda.
- Kirol-instalazioak zaintzeko eta mantentzeko plan bat lantzea, kirol-praktika segurua ziurtatzen duena eta praktika hori etorkizunean mantentzen lagunduko duena.

LAIKOTASUNA